

Mugaz gaindiko diru-alorreko nolako lankidetzak behar ditu Euskal Herriak?

Barter-sistema baten bideragarritasunaz Biharrek agindutako ikerketaren laburpen orokorra

Aurkibidea

Hitzaurrea5

1. Partea: Barter-sistemen funtzionamenduko kontuan izan beharreko funtsezko ezaugarriak eta haien oinarri juridikoak9

1.1 Zenbait eratako barterrak 10

1.2. Enpresen arteko elkarrekiko krediturako plataforma baten funtzionamenduaren berezitasunak 11

1.2.1 Zorren eta kredituen alde anitzeko konpentsazio-sistemak dira barterrak, enpresa bakoitzaren kontuak orekatzeko joera eragiten dutenak. 11

1.2.2 Hona enpresen arteko elkarrekiko krediturako plataformen hiru abantailak: 12

1.2.3 Funtsezko bi bitarteko hauen mende dago barterren funtzionamendu egokia: azpiegitura digitala, eta giza baliabideak. Halaber, arriskuaren kudeaketa zorrotza behar da. 13

1.2.4 Trena osagarriak dira barterrak, sare komertzial hutsa baino zerbait gehiago, erkidego gisa egitura baitaitezke. 14

1.3 Mugaz gaindiko barter batek Euskal Herriko ekonomiari dakartzkion ondorio positiboak 15

1.3.1 Areagotu egingo dira enpresen arteko harremanak, eta indartu tokiko ekonomia zein mugaz gaindiko trukea. 16

1.3.2 Hobetu egiten da enpresen erresilientzia. 17

1.3.3. Ekonomia zirkularrari dagokionez duen potentziala. 18

1.4 Barterren ibilbideen azterketa, sistema egonkortzeko zailtasunak agerian uzten dituena 19

1.4.1 Hasierako fasea, zaila. 19

1.4.2 Egonkortzea zaila den hedatze-dinamika.	20
1.5 Inongo arazorik ez dakarren eremu juridikoa	22
2. Parte: Mugaz gaindiko barter-sistema bat eratzeko bi aukera	24
2.1 Elkarrekiko kreditu-sistema bat Euskal herrirako: sare bat baino gehiago, mugaz gaindiko barter-erkidego bat	25
2.1.1 Sare huts bat baino gehiago, barter-erkidego bat martxan jartzea da helburua.	25
2.1.2 Hurbileko hiru azpisareren gainean eraiki behar da mugaz gaindiko egitura.	26
2.1.3 Herritarren partaidetzari atek zabaltzen dizkion barter-eredu bat lehenetsi behar da.	27
2.1.4 Bazkideen aniztasuna eta diru-tresna osagarrien arteko sinergiak errazten dituzten estatutuak eta berariazko gobernantza.	28
2.2 Hasierako enpresa-laginararen ezaugarriak, barter baten funtzionamenduaren arabera	29
2.2.1 Euskal Herriko enpresen arteko fluxuen eta tokiko zirkuluen azterketak aukera ematen du zehazteko zein diren barter bat martxan jartzeko behar diren jardura nagusiak.	29
2.2.2 Lehendik lanean ari diren enpresa eta elkarten lagin bat izan daiteke oinarri mugaz gaindiko barterra martxan jartzeko lanean.	30
2.3 Eredu ekonomikoa: barterra martxan jartzeko, eskaintza erakargarria, inbertsio garrantzitsua eta garapen iraunkorrerako elkarteak behar dira	32
2.3.1 Balio-eskaintza bat, ezaugarri garrantzitsuena hau duena: balio-komunitate berean eta mugaz gaindiko negozio-sare batean parte hartzea.	32
2.3.2 Hiru irtenbide sistema informatikorako.	33

Aurkibidea

2.3.3	Negozio Planaren ondorioak: inbertsio handia eskatzen du barterra martxan jartzeko faseak.	34
2.3.4	Azken batean, komeni da zuhurrak izatea. Euskal Herriko mugaz gaindiko barter baten plazaratze- eta garatze-baldintzak direla eta. .	35
2.4	Hona barter bat martxan jarri aurretik eman beharreko bi pauso: Hego Euskal Herrian Euskoa probatzea, eta ESEaren mugaz gaindiko sare bat eratzea	38
2.4.1	Hego Euskal Herrian Euskoa probatzea...	38
2.4.2	ESEko eragileen mugaz gaindiko sarea.	39
	Bibliografia	41




Illustration : storyset.com

Hitzaurrea

2020 urtean, Covid 19-ak inposaturiko konfinamenduan, Euskal Monetaren talde eragileak egoera horrek atal ekonomikoan eduki zitzakeen ondorio ekonomikoei buruzko kezka agertu zituen. Bereziki, pandemiak enpresa txiki eta ertainak noraino kaltetu zitzakeen, hauek Ipar Euskal Herriko ehun ekonomikoaren parte handiena osatzen dutelarik... Izan ere, izurriteak eragindako ondorioak oso nabariak izan zirela gogoratu behar da: Europar Batasunaren Barne Produktua (BPG) %6 inguru apaldu da 2020an. Esan behar da baita ere, 2008ko finantza krisiak kateatu zituen ondorioak denen gogoan zeudela oraindik.

Egoera eta kezka honen haritik, Euskoa kudeatzen duen Euskal Monetaren talde eragileak Euskal Herrian elkartruke sistema (edo « barter » ingelesez) baten egingarritasuna aztertzeke erabakia hartu du, sinisturik jasaten ditugun krisi ekonomiko geroz eta ugariagoek tresna «endogenoak» indarrean jartzea eskatzen dutela, tokian toki sustaturikoak, eta «behetik gorako» ikuspegi baten arabera eratuak.

Elkartruke sistemak "BtoB" moneta-zirkuitu gisa ere ezagunak dira, "Business-to-Business" (enpresatik enpresara) moneta gisa. Moneta ofizialik gabeko enpresen trukaketak kudeatzen dituzte. Gehienetan, sarean soilik erabiliak diren moneta unitateetan enpresei interesik gabeko kredituak (aurrerapenak) eskaintzen dizkiete. Horiei esker enpresek sarearen baitan erosketak egin ahal dituzte, baina salmentak ere gauzatzera behartuak dira, kredituak (aurrerapenak) itzultzeke beharrezkoak dituzten zirkuituaren unitateak eskuratu ahal izateko. Elkartruke plataforma baten funtzionamenduaren muna transakzio guztiak erregistratzen dituen konpentsazio-mekanismo bat da, horretarako truke-sareko kontu-unitate espezifikoa erabiliz. Konpentsazio-sistemaren bitartez, sareko kide batekiko zorra kitatu daiteke, beste kide batzuen kreditu lerroei esker.

Elkartruke sistemak ez dira oso ezagunak Europan, baina bi kasu nazioartean famatuak bilakatu dira: WIR Suitzan, eta Sardex Italian. Bi barter horiek krisi garai batean sortuak izan dira: 1929ko krisia garaian WIR-aren kasuan, eta 2008ko krisiaren biharamunean Sardex-aren kasuan. WIR-a 1934ean eratu zen, eta gaur, jarduera mota guztietako 60.000 enpresa saretzen dituen banku kooperatiboa da, 2 miliar Suitzako frankoko transakzio bolumena kudeatzen duena. Sardex-a 2010ean eratu zen Sardinian, eta egun, Italia osoan hedatua eta, 7.000 enpresa baino gehiagoz osatua den plataforma bilakatu da: SardexPay. Sistema horiek krisi testuinguru batean enpresak laguntzeko gaitasuna erakutsi dute, bereziki kredituak lortzeko zailtasunetan diren enpresa txikiei aterabide bat eskainiz.

Euskal Herrian barter sistema baten egingarritasuna aztertzeke Euskal Monetak hartu duen erabakia saihestezinezko baldintza batean oinarritua da. Eratu daiteken barter sistema Euskoarekin bateragarria izatea gutxienez, edo ahal bada, osagarria. Bi sareek ez lukete deusetan lehia egon behar.

Euskoa egun Europako tokiko moneta inportanteena da¹. Euskoak ondoko baloreak defenditzen ditu, bere sareko enpresek hartzen dituzten konpromisoen bitartez: ekonomiaren birtokiratzea, praktika sozial eta ekologikoak, eragile ekonomikoen arteko elkartasun printzipioa, eta euskararen sustapena. Euskoaren arrakasta balore horiekiko identifikazioa dela medio, lortu duen mobilizazio herritarrari lotua da. Eratuko litzatekeen barter sistemak Euskoaren aktibo sozial hori ez luke ezertankaltetu beharko.

Ikerketa honen bigarren ezaugarria lurralde eskalari dagokio. Barter sistema baten bideragarritasuna bi hertsapenei baldintzatua da. Lehena, masa kritikoari loturiko hertsapen bat: sistemak enpresa kopuru handi bat saretu behar du autofinantziazio maila batera iristeko. Bigarrena, hertsapen kualitatibo bat da: sistemak sarearen enpresa guztiei erosteko eta saltzeko aukerak bermatu behar dizkie. Horrek sareko enpresen jarduera sektoreen gutxieneko aniztasuna eskatzen du.

Bi baldintza horiei begira, Ipar Euskal Herria lurralde eremu mugatuegia dela kontsideratu da. Iparraldeak 310.000 biztanle ditu, ekonomia mailan, industria arloa nahiko mugatua duelarik. Barter sistema bat martxan jartzeko aukerak egonda ere, sistemaren garapenak bere mugak nahiko azkar aurkituko lituzke Ipar Euskal Herri mailan. Horregatik, azterketa Euskal Herri osoaren perspektiban kokatuda, mugaz-gaundiko barter baten egingarritasuna aztertzeko xedearekin. Hego Euskal Herrian, Euskadik eta Nafarroak ia 3 milioi biztanle zenbatzen dituzte. Ekonomiaren aldetik oso dinamikoak diren lurraldeak ordezkatzeko dituzte, industria sare trinko batekin (bereziki Euskadin). Hiru lurralde horietan mugaz-gaundiko barter sare bat sortzeak aipatutako bi hertsapenei erantzutea ahalbidetuko luke.

Baina dimentsio ekonomikotik haratago, lurralde-eskala horrek, ikuspegi kultural eta identitario batetik ere zentzua du. Eta Euskoaren ibilbideak erakusten digunez, moneta sareei lotuak diren dinamiketan dimentsio sozialak eta identitarioak garrantzi handia dute. Euskal kultura eta euskara Iparraldean, Euskadin eta Nafarroan hedatuak daudenez, hiru eremu horien artean nortasun lotura estua dago.

1 Sareak 3 milioi Euskoko transakzioak zenbatzen ditu, eta ondoko eragileekin osatua da : 4.000 herritar, 1.300 entitate profesional, Iparraldeko 36 Herriko Etxe, eta Euskal Hirigune Elkargoa.

Frantziar gobernuak gidaturiko PIPAME²-ren (2013a) ikerketak mugaz bi aldeetako zonaldeetan barter sistemak eratzea iradokitzen du. Mugaz-gaindiko enpresen elkartruke sistema bat aurkitzen dugu Suitza eta Frantziaren artean: Le Léman. Baina hemen ikertuko dugun barter sistema Europar Batasunaren baitan lehena litzateke.

Sintesi honek egingarritasun ikerketaren lehen fasearen berri ematen du. Hastapen batean, ikerketa bi fasetan eramatea pentsatua zegoen. Hemen laburbiltzen dugun lehen fase honen helburua barter esperientzia ezberdinen ikuskapena egitea izan da, eta hortik bi modelo formalizatzea. Bigarren faseak, enpresen lagin baten bitartez bi modelo horien egokitasuna testatu beharko zuen.

Bi zatitan eraman dugu mugaz gaindiko barter-sistema baten bidegararritasun-azterketaren lehen fasea.

Lehenbizikoan, barter-sistemen funtzionamendua aztertu dugu, hau argitzeko: zein diren enpresen arteko elkarrekiko kreditu-plataforma bat martxan jartzeko bete behar diren ezaugarri nagusiak eta gainditu beharreko arazoak. Halaber, lehen zatian bereziki aztertu ditugu enpresen arteko elkarrekiko kreditu-plataforma baten oinarri juridikoak, batez ere Espainiako zuzenbideari dagozkionak, zeini arreta berezia eskaini behar baitzaie, gure ustean. Horrelako sistema baten potentziala nabarmendu dute lehen zatitik ateratako ondorioek, baina hura martxan jartzeko zailtasun errealak ere agerian utzi dituzte.

Horregatik, bigarren zatian bi egoera hipotetiko jorratu ditugu Euskal Herrian barter bat sortzeko aukerak zehaztean. Hona lehenbiziko egoera hipotetikoa: ex nihilo sortzea enpresen arteko elkarrekiko krediturako plataforma bat. Halako plataformarik sortu ezean, hau litzateke bigarren bidea: gerora barter bat sortzeko behar diren aitzin-urratsak egitea. Bi aukera ageri zaizkigu bigarren egoera hipotetiko horretan: Euskoa erabiltzen hastea Hego Euskal Herriko bi erkidegoetan, eta Ekonomia Sozial Eraldatzailearen (ESE) enpresen mugaz gaindiko lehen sare bat egituratzea.

2 PIPAME frantses gobernu erakunde bat da : « Pôle Interministériel de Prospective et d'Anticipation des Mutations Economiques »



Illustration : storyset.com

1. **Partea:** Barter-sistemen funtzionamenduko kontuan izan beharreko funtsezko ezaugarriak eta haien oinarri juridikoak

Hona zergatik aztertu dugun barterren funtzionamendua: Euskal Herrian mugaz gaindiko horrelako sistema bat martxan jartzeko saihestezinak diren alderdiak zein diren jakitearren. Gaiari buruzko literatura begiratu dugu horretarako, baina –batez ere– zenbait barterretako arduradunei egindako elkarrizketak baliatu ditugu (ikus 6. eranskina). M. Amatoren ekarpenak bultzaturik (ikus 1. eranskina), Sardiniako Sardex aztertu dugu bereziki, Euskal Herriarentzat esperientzia oso iradokitzailea dela baiteritzogu. Hona azterketaren ondorioak.

1.1 Zenbait eratako barterrak

Nahiko ezezagunak dira barterrak Europan. Dena dela, (International Reciprocal Trade Association - IRTA), nazioarteko barter-elkartearen iritzian «industriatzat» jo daitezke barterrak, zeinek batez ere herrialde anglosaxoietan baitute indarra. Beraz, komeni da barterren egitura-aniztasuna azpimarratzea, baina baita haien ibilbideak ere, nahiko ezezagunak diren sistema horien lehen azterketa batek agerrarazten dituenak.

Helburu komertzialak soilik dituzte barter askok, batez ere AEBn. Baina enpresen arteko lankidetzak eta elkartasun-tresna ere izan daitezke barterrak, are interesgarriagoak kontuan izanik tradizio eta ekimen desberdinak dituztela sorburu haietako zenbaitek. WIR da munduko esperientziarik ezagunena. 1929ko krisiaren ondoren jarri zuten martxan zenbait ekintzailek, enpresa txikiei kredituak eskuratzeko zituzten zailtasunak gainditzen laguntzearen. Testuinguru berean —1929ko krisiaren garaian— bultzatu zuten barterren sorrera zenbait langabe-sindikatu —Seattleko Unemployed Citizens Leaguek (UCL) eta Minneapoliseko Minneapolis's Organized Unemployed Inc.-ek, besteak beste—, langabeek eurek jarduerak martxan jar zitzaten. Beste krisi bati, 2008koari, aurre egiteko sortu zen —2010ean— erreferentziazko beste barter bat: Sardex. Baina Sardexen kasuan beste elementu bat izan zen nagusi: barterren sortzaileen euren lurraldearekiko atxikimendu trinkoa, Sardiniaren tokiko garapena bultzatzeko grina.

Nabarmentzekoa da, halaber, sistemen aniztasuna, haien ibilbideen araberakoa. Jakina, arrakastaren eredu («succes stories») dira erreferentziazko barterrak; zehazki, WIR sarea, zeina 60.000 enpresak baino gehiagok osatzen baitute, hots, Suitzako enpresa txiki eta ertainen % 20k. Sardex sareak, berriz, 7.000 enpresatik gora ditu, sortu zela hamar urte besterik ez badira ere. Baina «succes stories» direlakoak ez ezik porrot egin duten ahaleginak ere aztertzea erabaki dugu. Hala, bada, Grenobleko Aurexen eta Nanteseko SoNantesen kasuak aztertu ditugu.

Gogora dezagun, bestalde, oso originala dela zenbait barterren egituraketa, enpresa arteko sare hutsa baino askoz gehiago. Horra, adibidez, Lémanen kasua, Léman aintziraren alde bietara diharduen barter frantses-suitzarra. Gutxi dira plataforma horretako enpresa frantsesak, baina hala ere

barter interesgarria da gure ikerketarako. Mugaz gaindiko izaeraz gain, zirkuitu-bikoiztasuna ere bereizgarri du Lémanek: enpresa arteko kreditu-zirkuitu bat (Lémanex) eta bertako diruarena (e-léman) ditu, izan ere. Bloke-katea (blockchain) deritzon teknologia erabiltzen duen sistema informatiko batek ahalbidetzen du egituraketa hori.

1.2. Enpresen arteko elkarrekiko krediturako plataforma baten funtzionamenduaren berezitasunak

Barter bat martxan jarri nahi duen proiektu orok kontuan izan behar ditu sare horiek berariazkoak eta ezinbestekoak dituzten zenbait alderdi. Funtsezko lau ezaugarri nabarmendu ditugu guk:

1.2.1 Zorren eta kredituen alde anitzeko konpentsazio-sistemak dira barterrak, enpresa bakoitzaren kontuak orekatzeko joera eragiten dutenak.

Hona barter-sistemen funtzionamenduaren funtsa: sareko kide diren enpresei zirkuitu-unitatetan ematen zaizkien altxortegiko edo diruzaintzako aurrerakinak (kredituak). Aurrerakin horiek aukera ematen dute ondasunak edo zerbitzuak eskuratzeko, eurotako altxortegia erabili gabe. Baina haiek itzultzeko, sarearen barruan salmentak egin behar dituzte enpresa onuradunek. Alde anitzeko konpentsazio-mekanismo baten bidez kudeatzen dira parte-hartzaileen posizioak. Alde biko transakzio bat baldin badute jatorri zorrek eta kredituek, sistema osoari dagozkio. Tokiko diruaren funtzionamenduan ez bezala, zirkuituko unitateek ez diete aldez aurretik eragiten eurotako zenbateko baliokideei, kreditua baitute jatorri. TDO, Tokiko Diru Osagarri baten lagungarri ere bada da tresna hori. Izan ere, sarearen garapenak eta haren transakzio-potentzialak sustatzen dute kreditua eta, honenbestez, zirkulatzen duen diruaren zenbatekoa. Baina, aldi berean, mugatzaileagoa ere bada aukera hori, ezin baita dirua eurotara aldatu. Kontabilitatearen

ikuspegitik, barter-sistemak orekan egoten dira agregatuari dagokionez, baina haien kudeaketa zorrotza izan dadin, orekan egon behar du parte-hartzaileen kontuetako bakoitzak ere: soberazko saldoak dituzten enpresek nahitaez gastatu behar dituzte beren barter-unitateak, zeren eta bazkide batzuen defiziten euskarri ere baitira. Aurrerago aztertuko ditugu betekizun hori kudeatzeko dauden aukerak.

1.2.2 Hona enpresen arteko elkarrekiko krediturako plataformen hiru abantailak:

a/ Erraztu egiten dute altxortegiko betebeharren kudeaketa. Altxortegiko kredituetan datza barterren funtzionamenduaren gakoa: normalean tasa nuluan ematen dira, eta bankuenek baino baldintza hobekak izaten dituzte. Enpresen arteko kreditu klasikoak esleitzeko ohitura duten enpresentzat ere onuragarriagoak dira, zeren eta ordainduko zaielako agintza jaso beharrean erosteko ahalmena berenganatzen dute automatikoki enpresa saltzaileek. Barterrak kapital zirkulatzailerak finantzatzeak leundu egiten du funts zirkulatzailerak kudeatzeko betekizuna.

b/ Sare komertzial egituratu batean esku hartzeko aukera ematen dute. Sarearen suspertze-protokoloari esker, abantaila hau dute barterretako enpresek: transakzio-kostu txikiagoak, denbora gutxiago erabili behar izaten baitute hornitzaileak eta bezeroak bilatzen. Zenbakizko plataformak dituzte barter eraginkorrek, eskariaren eta eskaintzaren elkartzea erraztu dezaten. Horretarako, artekari-taldeak jartzen dituzte enpresen zerbitzura, sareko kideen jarraipen pertsonalizatua egin dezaten. Komunikazio-bide propioak ere badituzte (aldizkariak, Interneteko webguneak...) eta sareko lana ere sustatzen dute (topaketak, azokak...). Abantaila esanguratsuak dira baliabide komertzial propiorik gabeko enpresa txikientzat. Bestalde, lehen eskuraezinak iruditzen zitzaizkien baliabideak erabil ditzakete enpresa oso txikiek; esate baterako, aholkularitza juridikoa eta publizitatea. Barterren beste funtsezko funtzio bat ere nabarmentzekoa da, eta hala egiten du M. Amatok: aukera ematen du zenbait harreman ezartzeko, bestela ezinezkoak liratekeenak.

c/ Laburbilduz, soberazko baliabideen balorizazio ekonomikoa bultzatzen

dute, ekonomia zirkularraren irizpideei jarraikiz. Ekoizpen-soberakinak ez ezik, gutxi erabiltzen diren aktiboak ere sartzen dira baliabide horien zerrendan: izakinen biltegiak, bulegoak, ibilgailuak, material informatikoak eta abar. Askotan, ez dira erraz aurkitzen ahalmen osagarri horiek, batez ere gutxi erabiltzen diren zenbait aktibo. Eta horixe da, hain zuzen ere, barter askoren argudio komertzial nagusietakoa: balorizazio ekonomikoa aurkitzeko bidea. Euren sarean enpresa berriak hartzeko aukera aztertzea proposatzen dute barter horiek, eta haien ahalmen osagarrien diagnostikoa egitea. Hona barterren hirugarren ezaugarri bat: aukera ematen dute elkarrekin uztartzeko gutxi erabiltzen diren baliabideak eta ase gabeko beharrak (Kennedy, Lietaer, 2018).

1.2.3 Funtsezko bi bitarteko hauen mende dago barterren funtzionamendu egokia: azpiegitura digitala, eta giza baliabideak. Halaber, arriskuaren kudeaketa zorrotza behar da.

Diru-baliabide guztiek funtsezko alderdi sozial bat dute oinarri: konfiantza. Elkarrekiko kreditu-plataformei dagokienez, funtsezko bi baliabide hauen mende dago partaideek sistemarekiko duten konfiantzaren maila: azpiegitura digitala eta giza baliabideak. Arriskuaren kudeaketa zorrotza eskatzen dute biek ala biek.

Azpiegitura digitala. Hona zer diren barter-plataformak: transakzioak erregistratzen eta kreditu- zein zor-posizioen jarraipena egiten duten kontabilitate-sistemak. Azpiegitura digitalak ziurtatzen du kudeaketa hori. Ikuspegi horren arabera antolatzen den eremua ez da diru fisikoarena, baizik eta diru digitalarena. XXI. mendearen hasieran komunikazioaren eta informazioaren teknologiek izan duten bilakaera azkarrak eragile berrien sorrera sustatu du barteringaren alorrean. Estrategikoa da azpiegitura digitala, haren esku baitaude sistemaren segurtasuna, kudeaketaren eraginkortasuna eta, honenbestez, erabiltzaileek eman diezaioketen konfiantza.

Giza baliabideak. Oraintsu azaldu dugunez, hau da barterren funtsezko eginkizunetako bat: ahalik eta transakzio-kopururik handiena eragitea

bere sareko kideen artean. Komeni da, beraz, hasieratik edukitzea eragile komertzialen talde sendo bat (artekariak edo brokerak). Esate baterako, Sardexen arrakastarako funtsezkoa izan da alderdi hori. Diagnostikoa egin ondoren, enpresa berriak onartzeko baldintzak zehaztu zituzten brokerrek, eta haien jarraipen pertsonala bermatu, transakzioak behar bezala egiten laguntzeko; halaber, zenbait aholku eman zituzten. Enpresetako ordezkarien lekukotasun ugarik diote zera, broker-taldearen eraginkortasuna eta harremanetarako gaitasuna izan zirela Sardexekiko konfiantzaren eragile nagusiak.

Arriskuaren kudeaketa. Funtsezko bi baliabideak zehazturik, arriskua kudeatzeko bideek ere konfiantza sortzen dute barterrekiko, zeinak zorren eta kredituen alderdi anitzeko konpentsazio-sistema baitira. Zorrozkiki kudeatu behar da arriskua, sistemaren iraunkortasuna bermatzeko. Batez ere porrot egiteko arriskutik babesteko, berme-mekanismo bat behar dute enpresek, sareko beste kide batzuei eragin diezaieketen zorrak deuseztatzeiko aukera ematen duena.

1.2.4 Trena osagarriak dira barterrak, sare komertzial hutsa baino zerbaite gehiago, erkidego gisa egitura baitaitezke.

Batzuetan, diru osagarriak ordezeko tresna gisa aurkeztu ohi ditu literaturak. Guri, aldiz, egokiagoa iruditzen zaigu tresna osagarri deitzea enpresen arteko elkarrekiko kreditu-sistemei. Alde batetik, diru ofiziala izaten jarraitzen du denek onartzen duten ordainketa saihesteko tresnak. Euroak behar dituzte enpresek zergak ordaintzeko, zorrak kitatzeko eta abarretarako. Alabaina, barter-unitateak ezin dira euro bihurtu. PIPAMEn ikerketak³ (2013a) zera gomendatzen du, negozio-zifraren % 10era mugatzea barter-sareen barruko transakzioen kopurua.

Barter askoren helburu bakarra komertziala da. Horra, adibidez, Belgikako

3 PIPAME: Pôle Interministériel de Prospective et d'Anticipation des Mutations Economiques.

RESen kasua, ikerketa honetarako aztertu duguna. Dena dela, lehendik ere aipatu dugu elkartasuna eta lankidetzaren ezinbesteko balioak dituzten erreferentziazko zenbait barterren historia (WIR eta Sardex, besteak beste), ahalik eta errentagarritasun eta etekin handiena lortu nahi duten beste batzuen alternatiba dira eta. «WIR» deitura «Wirtschaftsring»-en laburdura dugu, eta «lankidetzako zirkulu ekonomikoa» esan nahi du. Sardexi dagokionez, berriz, Sardinian lankidetzaren eta tokiko garapena bultzatzeko nahiak bultzatu zituen barterren eraikitzearen haren bost sortzaileak. Bat datoz iritziak bi kasu eredu-garri horiek direla eta. G. Valletek (2005) hau azpimarratzen du: «zirkulu» ekonomiko bateko kide izateko ez ezik, WIRen parte hartzeak aukera ematen die enpresei esku hartzeko bestelako truke-bide batzuetan sinesten duen erkidego batean. P. Antoniadis & Alliren iritziz (2017), berriz, dirua beste era batera erabil daitekeela sinesten duen erkidego bat da Sardex.

1.3 Mugaz gaindiko barter batek Euskal Herriko ekonomiari dakartzkion ondorio positiboak

Barterren funtzionamenduaren azterketa egin ondoren, tokiko garapenari barterrek egiten dioten ekarpenaren mekanismoak jorratu ditugu. Eta ikerketa horrek berretsi egin du gure ustea; hots, onuragarria dela Euskal Herriko ekonomiarentzat mugaz gaindiko barter bat sortzea.

Ondorio horretara iritsi aurretik, Euskal Herriko mugaz gaindiko harreman ekonomikoak aztertu ditugu.

Baionako MIGrekin elkarlanean jardun gara mugaz gaindiko barterren potentzial ekonomikoa diagnostikatzen. Izan ere, Euskal Herri osoko fluxu ekonomiko nagusien gaineko ikerketa bat egin du aipatu Ganberak. Ipar eta Hego Euskal Herrian ez dagoen zenbait datu estatistikoren gaineko estimazio baten gaineko eredu bat baliatu du horretarako MIGk. Funtsezko bi ezaugarri nabarmendu ditu azterketak. Ez dira batere harrigarriak biak ere, baina gaiari neurria hartzeko balio izan du datuen estimazioak. Lehenik eta behin, hau nabarmentzen du lanak: arras desberdinak direla Ipar eta Hego Euskal Herriko ekonomiak. Bizitegi-ekonomiaren profila du Iparraldeak, non zerbitzu-jarduerak baitira nagusi. Hegoaldeak, berriz, ekonomia produktiboa

du ardatz, eta jarduera industrial oso bizia. Elkarren arteko asimetria handiaz gain, beste ezaugarri bat ere badute ekonomia biek: apenas dute loturarik elkarrekin. Ipar Euskal Herriko ekoizpenaren % 2 baino ez dira Iparraldetik Hegoalderako esportazioak; Hegoaldetik Iparralderakoak, berriz, % 0,3 besterik ez. Gaur egun, oso eskasa da Euskal Herriko mugaz gaindiko eremuko truke ekonomikoa⁴.

Uztartuta daude ekonomia bien arteko desberdintasuna eta elkarrekiko loturarik eza; izan ere, aipatutako egiturazko ezberdintasunek eragiten dute —hein batean— mugaz gaindiko trukearen urritasuna. Baina mugaz gaindiko trukeen berezko zailtasunek ere badute eragina: hor ditugu hizkuntzaren alorrekoak, erakundeen aniztasunari dagozkienak (eskumenen asimetria), administrazio-prozeduren pisua, zerga-araubideen arteko aldeak, funtzionamendu-kulturen artekoak eta abar. Dena dela, bat datoz honetan Euskal Herriko mugaz gaindiko truke-eremuan esku hartzen duten eragile guztiak: potentzial handia dauka barterrak. Hiru milioi biztanletik gora ditu Euskal Herriko mugaz gaindiko eremuak, eta aukera ematen du masa kritikoak higiarazteko, alor ekonomikoan, sozialean eta trantsizio ekologikokoan palanka eraginkor gisa jardun daitezten. Alor ekonomikoari dagokionez, enpresen arteko lankidetzaren sendotuz ekin dakieke mugaz gaindiko berrikuntza-dinamikei (Alcalde, Lorenz, 2019).

Gure ustean, ekarpen potentzial esanguratsua egin diezaioke mugaz gaindiko barter batek Euskal Herriko ekonomiari. Hona hiru ekarpen aipagarrienak:

1.3.1 Areagotu egingo dira enpresen arteko harremanak, eta indartu tokiko ekonomia zein mugaz gaindiko trukea.

Zenbat eta ahulagoa altxortegirako dirua biltzeko prozesua, orduan eta azkarragoa barterren barruko diru-zirkulazioa. Gainera, itxia da barter-sistemako zirkuitua, diru ofizialetan ez bezala (euroa, adibidez), non esangurat-

⁴ Gehitu diezaiogun horri zera, elkarrekiko nahiko lotura eskasa dutela Hego Euskal Herriko bi autonomia-erkidegoetako ekonomiek, Nafarroakoak eta EAEkoak.

suak izan baitaitezke lurraldetik kanporako ihesak. TDOren kasuan ere atzematzen dira ondorio horiek, baina barter-unitateak bihurturik ez direnez, intentsitate handiagoz nabarmentzen dira elkarrekiko kreditu-plataformetan, betiere eskaintzan eta eskarian bat egiten duten enpresa bateragarri baldin bada. Tokiko ekonomia indartu egiten dute ondorio horiek, enpresen arteko trukeen trinkotze sendoa eragiten baitute, eta zenbait jardueraren birkokatzea, sarearen tamaina aintzat hartu gabe. Hala erakusten digu Sardexen esperientziak, adibidez.

Martxan jartzen diren mugaz gaindiko proiektuetako asko etorkizunik gabeko behin-behineko egitasmoak izan ohi dira. Hori da, hain justu ere, mugaz gaindiko lankidetzak aurkitzen duen oztopo nagusietakoa. Eta hau da mugaz gaindiko barterrek egin dezaketen ekarpen nagusia: mugaz gaindiko enpresa-sare iraunkor bat sortzea. G. Vallleten iritzian (2005), sareen hedatze-dinamiken arabera dira barterren funtzionamendu-modalitateak, batez ere M. Granovetterrek (1973) asmatutako «lotura ahulen indarra» mekanismoaren mendekoak. A B-ren bazkidea baldin bada, eta B C-rena, aukera handia dago A eta C-ren artean lotura sortzeko —baita elkarren berri ez bazuten ere— sare bereko kide izateagatik. «Fidelizazio» efektua sortzea ahalbidetzen dute elkar ezagutzeak eta elkarrekiko konfiantza izateak. Hona mugaz gaindiko barterren xedea: elkar ezagutze hori bultzatzea, eta bermatzea halako garapen-atalase bat eta enpresen arteko loturen iraunkortasuna. Helburu hori lortzeko, bereziki egokia iruditu zaigu M. Navaroren (2018) baieztapen hau: hurbileko faktoreak martxan jartzea da mugaz gaindiko harremanetarako funtsezko elementuetako bat. Jakina, hurbiltasun geografikoaz ari gara, baina bistakoa da zera ere, motibazio komunak ezinbestekoak direla mugaz gaindiko harremanek iraungo badute (Alcalde, Lorenz, 2019): balio etikoak, lurraldearekiko atxikimendua, aukera ekonomiko jakin batzuk...

1.3.2 Hobetu egiten da enpresen erresilientzia.

Krisi-garaietan —batez ere kredituak eskuratzeko baldintzak zailagoak direnean—, egonkortze-tresnak dirudite barter-sistemek. Baina barter-unitateen zirkulazio-abiadura handiak baino gehiago beste faktore honek eragiten du egonkortzea: enpresek eurek bultzatzen dutela kreditua, banka-siste-

matik kanpo. Are nabarmenagoa izaten da eragin hori egoera ekonomikoa hondoratzen denean; izan ere, sareko partaideek joera izaten dute haren barruko transakzioak sendotzeko; sistematik kanpoko trukeak, berriz, ezegonkorragoak bihurtzen dira. WIRen kasuan egindako ikerketa makroekonomikoek berretsi egin dute erreakzio kontrazikliko hori (Stodder, 2009, eta Face, 2017); baieztatu egiten dituzte, halaber, sistema monetario eta finantzarioari buruzko B. Lietaarren eta M. Kennedyren (2008) gogoetak, orokorragoak. Aurreikuspen fidagarriak egiteko aukera dagoen mundu egonkor samar batean, zentzuzkoa da kudeaketa-sistema zentralizatuak erabiltzea. Ez, ordea, egoera ezegonkorretan. Barterren adibideak erakusten digunez, kreditua eskuratzeko beste bide batzuk eskaintzen dituzte informazioaren eta komunikazioaren teknologiek, deszentralizatuagoak izaki (Kalinowski, 2011). Lehenago ere aipatu dugunez, tresna osagarritzat har daitezke bide alternatibo horiek (bai eta TDOak ere). Dibisa zentralizatuen hutsuneak konpentsatzen laguntzen dute —batez ere tokiko finantzaketa-baliabideak mobilizatzen—, eta alor horretako trukeak trinkotzen eta egonkortzen. Egoera egonkortu batean, diruaren kudeaketa zentralizatuak eraginkortasuna bermatzen du; egoera ezegonkorretan, aniztasunak eta subsidiaritasunak erresilientzia sustatzen dute (Lietaer, 2009).

1.3.3. Ekonomia zirkularrari dagokionez duen potentziala.

Dituzten berezko ezaugarriak direla eta, tokiko diruak tresna eraginkorak izan daitezke trantsizio ekologikorako, ekonomia zirkularraren garapena sustatzen baitute. Mugatu egiten dute balio erantsien kanporako ihesa haiek erabiltzen diren lurraldeetatik, eta bizkortu egiten dute diruaren bertako erabilera. Zenbait egoeratan, lagundu egiten du horrek tokiko trukeak aragotzen. Gainera, sarritan egozten zaie tokiko monetei «errebote-efektua»⁵, haien trukagarritasun erabatekoa dela eta. Aitzitik, suntsikortasun mugatua dute tokiko monetek, eta herritar partikularrek ezin dituzte erabili, sare baten

5 S.W. Jones ekonomialari ingelesak (1835-1882) argitaratu zuen errebote-efektuaren berri. Ikatzairen adibidearen bitartez, zera frogatu zuen S. W. Jonesek : paradoxikoki, ekoizpenaren edo energiaren aldetik eraginkorragoa izateak produktu baten edo hari lotutako energiaren erabilera handiagoa eragin dezakeela.

barruan ez bada. Helburu ekologikoen inguruan egituratuak izaten dira sare horietako asko.

M. Agliettak zioenez (2015), ekonomia zirkularraren irizpideekin bat daitoz tokiko diruak, batez ere barter-sistemetakook. Lehenik eta behin, azaldu berri ditugun mekanismoak indartu egiten dituelako barter-unitateak euro bihurtu ezinak, baina —baita ere— gutxi erabiltzen diren aktiboen balorizazioa —barter-sistemen hiru funtzioetako bat— delako ekonomia zirkularraren zazpi zutabeetako bat: Lurraldeko Ekologia Industriala (ADEME, 2017). Izan ere, lagundu egiten dute hondakinak intsumo gisa balorizatzen beste ekoizpen-prozesu batzuetan (ordezkapen-sinergiak), eta denei eskuragarri jartzen gutxi erabiltzen diren baliabideak (mutualizazio-sinergiak): ekipamenduak, espazio fisikoak, zerbitzuak...

1.4 Barterren ibilbideen azterketa, sistema egonkortzeko zailtasunak agerian uzten dituena

Zenbait barter ikertu ondoren⁶, haietako baten garapenaren ibilbidea aztertu dugu, eta hau ondorioztatu: ez da erraza hastapen-fasea martxan jartzea, eta faktore ugari biziki baldintzatzen dute sistema horien hedatze-dinamika.

1.4.1 Hasierako fasea, zaila.

Porrot egin duten barter-esperientziak jorratu ditugu: Nanteseko SoNantes, eta Grenobleko Aurex. Hiru elementu hauei erreparatu diegu:

a/ Hona arrakastaren gakoa: lehen enpresa-gune bat sortzea, barterren funtzionamenduarekin bateragarria dena. Bai SoNantesek bai Aurexek enpresa-kopuru nahiko txikia zutela ekin zioten jarduerari eta, horrenbestez, nahiko eskasa izan zen enpresen arteko transakzioen maiztasuna, eta nahiko urriak haiei zegozkien zenbatekoak.

⁶ Kasu hauek aztertu ditugu guk: Sardex, SoNantes, Aurex, RES, France Barter (orain, Korp sozietatea) eta Léman.

b/ Hipotesi zuhurrak izan behar ditu euskarri eredu ekonomikoak. SoNantes eta Aurexeko esperientziek erakusten digutenez, negozio-plan errealista bat eraiki behar da. Hobe da oso baikorra ez izatea eta ez gehiestea diru-sarreen fluxua –alde batetik–, eta ez gutxiestea –bestetik– gastu-iturriak.

c/ Proiektua martxan jartzean, komeni da ondo zehaztea balio-eskaintza eta kontuan izatea testuinguru makroekonomikoa. Nazioartean ezagunak egin diren zenbait barter –WIR eta Sardex, esate baterako– krisi-giroan jardun izan dira, eta eskaintzen zuten finantzaketa osagarria konponbide eraginkorra izan da enpresentzat, kredituaren uzkuertze orokorreko testuinguruan. Hona sare horien arrakastaren eragile nabarmena: altxortegiko aurrerakinak (barterren lehen abantaila). Baina COVIDaren garaian, Frantziako estatuko laguntza-politikek bermatu egin diete enpresei kreditua arazorik gabe eskuratzeko aukera. Horregatik, koloka geratu da barterren interes nagusia eta, testuinguru horretan, ez Sonantesek ez Aurexek ez dute lortu aurrera egitea.

1.4.2 Egonkortzea zaila den hedatze-dinamika.

Ez da erraza barterren hedatze-ibilbidea egonkortzea, zirkuitua ixteko arazoek baldintzatzen baitute prozesua, bai eta hurbileko presioa eta tamaina kritikoa lortzeko beharra uztartzen dituen dialektikak ere.

a/ Zirkuitua ixteko zailtasunak.

M. Amatok egin zuen Sardexen azterketak aukera eman digu zera joratzeko: barter-zirkuitu bat ixteko zailtasunak. Lehenago ere adierazi dugunez, sistema ondo kudeatzeko orekarako joera izan behar dute enpresa bakoitzaren kontuek. Zergatik? Bada, barter-unitateak ezin direlako euro bihurtu. Izan ere, saldo positiboa duten enpresek salmenta-aukerak eskaintzen dituzte eta, beraz, beren posizioak berrerekatzen saldo zordunak dituzten enpresekin. Hori dela eta, saldo-soberakinak dituzten enpresek nahitaez gastatu behar dituzte beren barter-unitateak, hartara simetrikoki mantentzen baitituzte beste bazkide batzuen posizio defizitarioak. Partikularrei beren barter-unitateak transferitzeko aukeraren bidez elkarrekiko kreditu-plataforma batean parte hartzea ahalbidetuz, barter-unitateak metatu dituzten enpresei haiek berrera-biltzeko modua eskaintzen zaie.

Partikularrak barterrean sartzeak aldatu egiten du enpresa-sarearen antolakuntza, merkataria ere onartu behar baititu. Honenbestez, BtoB transakzioen osagarri («Business to Business»), BtoC transakzioak («Business to Consumer») baliatzen dira. Kontuen orekaren muga murrizteaz gain, partikularrek sarean parte-hartzeak badu beste ondoriorik ere: bultzada gehigarria ematen dio enpresen arteko merkataritzari, eta gehitu egiten du azken kontsumoa. Azken eskaera kontuan harturik, erakunde publikoen parte-hartzea ere azter daiteke. Azken eskariaren osagai hori indartuz, bezeroen eta hornitzaileen arteko harremanen araberako sare-ikuspegiaren ordez zirkularitate-logika bat ezar daiteke barterrearen eremu osoan.

Hori da, hain zuzen ere, Sardexek erabili duen estrategia. Tokiko garapenari buruzko kezka direla medio, hasieratik saiatu da plataforma lurraldeari tinko atxikita finkatzen bere hedapena. Berehala ireki dizkio ateak herriarren eta elkarten partaidetzari, eta gogotik jardun da kultura-alorrean; besteak beste, sardinierako EJATV telebista-katea sortzen lagundu du, eta «Mitzaz» jaialdia antolatzen (Amato, 2016). Aldiz, ez du arrakastarik izan bertako taldeak erakartzeko ahaleginak. Partikularren artean zirkuituko unitateak banatzeko bide nagusia, berriz, hau izan da: barterretan ordaintzea soldaten zati bat. Sardexen kasuan, nahiko handiak izan dira zenbatekoak, zeinak BtoE («Business to Employee») transakzioen bilakaeraren bidez atzeman baititugu. Azpimarratzekoa da, bestalde, partikularrak sarera biltzeko estrategia hori izan duela tresna nagusi Belgikako RES barter komertzialaren garapenak ere. Soldaten zati bat barterretan ordaindu beharrean, beste bide bat erabiltzen du sare horrek partikularren partaidetza sustatzeko: «swap RESa». PayPal motako plataforma baten bitartez, RESeko partikularrei deskontu handiak aplikatuta saltzeko aukera dute merkatariek. Honenbestez, RESen baruko trukeen erdiak BtoB motako transakzioak dira; beste erdia, berriz, BtoC motakoak.

b/ Hurbileko presioa eta tamaina kritikora heltzeko beharra uztartzen dituen dialektika baten arabeko hedatze-dinamika.

Sardexen esperientziak erakusten digunez, elkarren artean oso transakzio gutxi egiten dituzten tokiko «klusterren» sorrera eragiten du barter baten funtzionamenduak. Esate baterako, Sardexen jatorriko probintziak —Medio Campidanok— apenas egiten duen trukerik mugakide duen Cagliariarekin. Elk-

arrekiko kredituaren plataformek jasaten duten hurbileko presioaren adierazpen bat da «kluster» efektua. Alde batetik, batez ere enpresa txikiz osatuta daude plataforma horiek, zeinek funtsezkoak baitituzte zuzeneko hartu-emanak, elkar ezagutzea eta konfiantzazko harremanak ahalbidetzen dituzte eta. Bestetik, tokiko sareak behar dira merkataritza sustatzeko. WIRen egiturak, adibidez, eskualdeko eta hurbileko 13 sare ditu euskarri.

Bi dira barterrek ondo funtzionatzeko funtsezko bitartekoak: azpiegitura digitala eta giza baliabideak. Ikertutako barterrek egiaztatu egin dute zera, bi baliabide horiek inbertsio esanguratsuak eskatzen dituztela barter bat martxan jarri behar denean, bai eta haren garapen-ibilbide osoan ere. Izan ere, etengabe ari denez aldatzen testuinguru teknologikoa, merkataritza sustatzeko trebakuntza-metodoak ere etengabe hobetzea dakar berekin batering jarduerak, eta arriskua kudeatzeko protokolo zorrotzak. Etengabeko inbertsio-beharrei dagokienez, berriz, masa kritikoaren presio handia jasaten dute barter-sistemek. Funtsezkoa da haien funtzionamenduak eskalako ekonomiak bermatzea, eta aukera ematea inbertsio-kostu eguneratuak amortizatzen.

1.5 Inongo arazorik ez dakarren eremu juridikoa

Barterren bitartez, enpresek eurek sortzen dituzte kredituak eta zorrak, banku-kanal klasikoetatik kanpo. Alde horretatik, enpresen arteko kreditu-sistemek zalantzan jartzen dutenez krediturako dirua sortzeko bankuen monopolioa (Kalinowski, 2011), gai izan behar du instantzia erregulatzaileak hobeto zaintzeko. Beraz, oinarri juridiko sendoak izan behar ditu. Horregatik, arretaz aztertu ditugu barterren jarduerak euskarri dituen esparru juridikoak. Zehazkiago, Espainiako esparrua arretaz zaindu behar dela iruditu zaigu. Hori dela eta, barterrei eta TDOei buruzko Espainiako zuzenbidea zorrozki aztertu du Donostiako GEZKI institutuko⁷ jurista-talde batek. Horrek guztiak berresten digunez, mugaz gaindiko barter bat eratzeak ez dakar berekin inolako zailtasun juridikorik.

7 Ekonomia Sozial eta Solidarioari buruzko ikerketa-zentro bat da GEZKI. Jurista hauek egin dute Espainiako zuzenbideari dagokion azterketa (zorrotza, zinez): Irati Basoredo Otzerinjauregik, Aitor Bengoetxea Alkortak, Irune Suberbiola Garbizuk eta Itziar Villafáñez Pérezek.

Frantziako zuzenbideari dagokionez, barter-sistemen jarduera guztiz legezkoa dela argi asko baieztatu du PIPAMEn azterketak (2013b). Ondasun-eta zerbitzu-salmenta «konpentsatu» gisa ikusten dira sistema horietan egiten diren transakzioak, erosketa-prezio baliokidekoak eta altxortegi-mugimendurik eragiten ez dutenak. Sareko trukeei eta kideei aplikatzen zaizkie enpresei ezarritako arau komertzial eta betekizun guztiak (produktu akastunekiko eta ingurumenarekiko erantzukizuna, lan-kodea eta abar). Zerga-ordainketari ere aplikatu behar zaio printzipio hori.

Espainiako zuzenbidean ere baliagarriak dira ondorio horiek. Bestalde, Tokiko Diru Osagarrien jarduerari eragiten diote konfigurazio juridikoen arteko aldeak. Hona Espainiako zuzenbidearen berezitasun bat: erakunde publikoekin lankidetzan jarduteko aukera lehenestea. Alderdi horri dagokionez, badirudi Espainiako udalerriek Frantziakoek baino askoz ere bide gehiago dituztela tokiko diruaren zirkuituan parte hartzeko. Gauza bera gertatzen da elkarrekiko kredituaren sareetako partaidetzari dagokionez.

Mugaz gaindiko alorrari dagokionez, berriz, ez dakar berekin berariazko betekizun juridikorik. Izan ere, zuzenbide komertzialari dagokio barterren jarduera. Europar Batasunean zerbitzuak kokatu eta emateko askatasunaren printzipioari jarraikiz, Frantziako sozietate batek zerbitzuak eskain ditzake Espainian filialik sortu gabe eta alde aurreko baimen zein onespelik gabe.

Barter-sistemen oinarri juridikoak ez dira TDOenak bezain murriztaileak. Zuzenbide monetario eta finantzarioaren mendekoa da TDOen funtzionamendua, zeina zorrozki kontrolatzen baitute erregulazioaren arduradunek. Paradoxiko samarra dirudi egoerak; izan ere, Sardexen kasuan ikusi dugun legez, bideragarriak dira partikularrek esku hartzen duten barter-ereduak. Azpimarratzekoa da Espainiako eta Frantziako zuzenbideak baimentzen dutela zirkuituko unitateak partikularrei banatzeko modalitate nagusia, hau da, lansarien zati bat barterretan ordaintzea. Dena dela, DTO baten erabileraren nahiko antzekoa da konfigurazio horretan, betiere partikularren ikuspegitik begiratuta. Baina bada alde nabarmen bat: kreditua dute jatorri zirkulazioan dauden barter-unitateek, eta ez dute behar alde aurreko zenbateko baliokiderik.




Illustration : storyset.com

2. **Partea:** Mugaz gaindiko barter-sistema bat eratzeko bi aukera

Azterketa honen lehen zatian, barterren funtzionamenduaren funtsezko alderdiak nabarmendu ditugu, betiere Euskal Herrian horrelako sistema bat ezartzeko proiektu bat xede dugula. Baina proiektu horren zailtasunak ere jarri dizkigu begien aurrean azterketak, eta barter bat eraikitzeke aukerak berrikustera behartu. Bigarren zatian, berriz, mugaz gaindiko barter-eredu baten parametroak jorratu ditugu, haren bideragarritasun ekonomikoa zenbatekoa den jakiteko. Halaber, epe laburrera «ex nihilo» barter bat sortzearen ordezeko egoera hipotetiko bat ere zehaztu dugu. Ordezko egoera hori dela medio, zenbait tresna sortu beharko dira elkarrekiko kreditu-plataforma garatu aurretik. Bi aukera ageri dira: Euskoa probatzea, eta mugaz gaindiko ESEko sare bat sortzea.

2.1 Elkarrekiko kreditu-sistema bat Euskal herrirako: sare bat baino gehiago, mugaz gaindiko barter-erkidego bat

Lehenbiziko zatiaren azterketa egin ondoren, hona zenbait iradokizun Euskal Herriko mugaz gaindiko barter batek izan behar lituzkeen ezaugarriak direla eta.

2.1.1 Sare huts bat baino gehiago, barter-erkidego bat martxan jartzea da helburua.

Hona Euskal Monetak bideragarritasun-azterketa honi buruz aurkeztutako betekizunetako bat: gutxienez Euskoarekiko bateragarritasuna bermatzen duen barter bat eratzea, baita tokiko diruaren osagarri dena ere. Nolanahi dela ere, Euskal Monetak erabat baztertzen du sare biak elkarren lehiakide izatea, duten egitura dutela ere. Honenbestez, modalitaterik logikoena eta eraginkorrena zera da, Euskoaren balio berak eurenganatzea mugaz gaindiko barterrean esku hartzen duten enpresek, hau da: ekonomiaren birlokalizazioa, sozialak eta ekologikoak izatea jarduerak, eragile ekonomikoen arteko elkartasun-printzipioa, eta euskara sustatzea. Hartara, sare huts batena baino gehiago erkidego baten itxura izango du barterrak. Proposatzen dugu, beraz, elkarren osagarri izatea barterra eta Euskoa. Gure iritzian, barter-erkidegoko kide diren enpresak Euskoari ere atxikitzea (jada atxikirik ez badaude) dakar berekin osagarritasun horrek. «Eusko barter» batez mintza gaitezke, nolabait.

Uste dugu balio partekatuak dituen enpresa-erkidego bat eratzea oso onuragarria izango dela mugaz gaindiko barter bat martxan jartzeko. Jada aipatua dugunez, barterren alorreko esperientziek hau izan dute oinarri garapenaren lehen faseetan: enpresen arteko elkartasun- eta lankidetzabaliok hedatzea. M. Amatoren ustean, barter bat martxan jartzeko ezinbestekoa da enpresa-gune zentral baten motibazioa. Aurex barterrearen koordinatzaile den C. Chautagnaten iruzkina ere (2022) berresten dugu: hasieratik «erkidego-sentimendu» bat egoteak are sendoagoak bihurtzen ditu elkarrekiko kreditu-plataforma bat martxan jartzeko oinarriak, enpresen plataformarekiko benetako konpromisoa iragartzen baitu. Guri dagokigunez, bereziki garrant-

zitsua deritzogu gai horri, hastapenetan baitaude oraindik enpresen arteko mugaz gaindiko transakzioak. Lehendik ezagutzen ditugun truke-jarduerak ez ditu oinarri gisa hartu behar mugaz gaindiko barterren funtzionamenduak, zeinak enpresen borondatea eskatzen baitu.

2.1.2 Hurbileko hiru azpisareren gainean eraiki behar da mugaz gaindiko egitura.

Hurbileko betekizun irmoaren beharra ondorioztatzen da lehenbiziko zatiaren azterketatik, ikuspegi bikoitz batetik begiratuta. Alde batetik, hurbileko sare bat eskatzen du barterren funtzionamendu egokiak. Bestetik, mugaz gaindiko truke ekonomikoak ahulak izaki, hurbileko zenbait palanka erabili behar dira. Balioen hurbiltasuna ez ezik, uste dugu komeni dela hurbiltasun geografiko sendoa ere bultzatzea; izan ere, barterrak batez ere enpresa txikiei zuzentzen zaizkie, eta hobe da garraio-kostu garestiak saihestea. Horregatik, bada, aldarrikatzen dugu hiru azpisare hauek eratzea Euskal Herriko mugaz gaindiko barter baten hastapen-fasean: Gipuzkoakoa bata (Euskadi), Nafarroako iparraldekoa bigarrena⁸, eta Iparraldekoa hirugarrena.

Azpisare horietako bakoitzak bermatu egin behar du bere koherentzia ekonomiko propioa. Hori dela eta, nortasun juridiko propioa izan behar du, bai eta sustapen komertzialeko talde trebe bat ere. Baina hau da mugaz gaindiko barter baten erronka: hiru azpisareen arteko estekak sendotzea, «lotura ahulen indarra» aktibatzeke. Hori lortzeko, ez da aski balio berak partekatzen dituzten enpresen jarrera boluntarista hutsa. Hiru azpisareen arteko loturak bultzatzeko, berriz, egitura orokor batek gainbegiratu behar ditu. Halaber, baliabideak partekatzen eta eskalako ekonomiak bultzatzen direla ziurtatu behar du egitura horrek.

8 Eremu horretarako, Iruñetik iparralderako industrialdeak («eskualdekoak» hautatu ditugu : Sakana, Larraun-Leitzaldea, Baztan-Bidasoa, Irunerria, Pirinioaurrea, Pirinioak.

2.1.3 Herritarren partaidetzari ateak zabaltzen dizkion barter-eredu bat lehenetsi behar da.

Ikusi dugu partikularrak bil daitezkeela barter-zirkuitu batera, eta horrek zera dakar, BtoB transakzioak BtoC zikloekin osatzea. Euskoaren osagarri den sistema baten antolakuntzan, berriz, elkarrekiko kredituaren plataforma-eredu horrek konfigurazio desberdinak eragingo lituzke Iparraldean eta Hegoaldean. Ipar Euskal Herrian, barterren eta Euskoaren arteko berariazko egituraketa bat behar da. Barterreko enpresa guztiak izan behar ditu partaide Euskoak. Baina aski erakargarriak izan behar dute barterren prestazio propioek, Euskoan esku hartzen duten enpresak barterre ere bil daitezzen. Partikularrei dagokienez, berriz, berezitasun hau izango lukete batzuek: Euskoaren partaide eta, aldi berean, barterreko kide izatea. Beraz, konfigurazioa Lémanek daukanaren antzekoa izango litzateke. Sistema informatikoak, bestalde, erraztu egin behar lieke erabilera bi tresnen erabiltzaile direnei. Hego Euskal Herrian, ez da epe laburrera planteatzen barterre Euskoarekin uztartzea; izan ere, Ipar Euskal Herrian bakarrik erabiltzen da Euskoa. Aitzitik, hau litzateke Hegoaldearen berezitasuna: herritarrek ez ezik agian zenbait erakunde publikok ere har dezaketela parte zirkuituan; udalek, esate baterako.

Barter-sistemaren hedapenari dagokionez, BtoB eta BtoC uztartzen dituen ereduak da eraginkorrena: leundu egiten du enpresen kontuak orekarantz bultzatzen dituen presioa, eta azken eskari bat eransten dio zirkuituari. Baina, gure ustez, ez da hori funtsezkoa. Gauza jakina da, izan ere, alderdi sozial esanguratsua dutela fenomeno monetarioek. Partikularrei barter batean jarduteko aukera ematen bazaie, profesionalen elkargoei ere bidea zabalik uzten zaie sarean parte har dezaten. Sare hutsa izan beharrean barterreko enpresa-erkidego bat antolatzen badu Euskoaren balioen inguruan, pentsatzekoa da partikularren eta profesionalen elkargoen parte-hartzeak Euskoak Ipar Euskal Herrian eragin zuen mobilizazio-mota bera sustatuko duela. Hain zuzen ere, mobilizazio hura du oinarri Euskoaren arrakastak, 2018az geroztik Europar eratu den TDOrrik esanguratsuenarenak, alegia. Hego Euskal Herriari dagokionez, zera uste dugu, Euskoaren balioen antzekoak sustatzen dituen barter batekiko atxikimendu handia eragin dezaketela jarduera sozial hain biziak eta gizarte zibil hain trinkoak.

Are indartsuagoa da eredu hori tokiko ekonomian izan ditzakeen eragin positiboak kontuan hartuz gero. Alde horretatik, oso garrantzitsua izan daiteke txanpon osagarrien ekarpena (trukearen areagotzea, trantsizio ekologikoa eta abar). Baina, sarri askotan, eskala mugatuegian erabiltzeak eta tokiko ekosistemak zedarritzeko zailtasunek (Blanc, Perrissin Fabert, 2016) ez dute uzten aukera hori baliozkotzen. Bigarren eredu horrek erraztu egingo luke zedarritze hori, Hego Euskal Herriko herritarren eta udalen parte-hartzeari irekirik baitago. Mugaz haraindiko izaera dela eta, enpresa eta erabiltzaile ugari mobilizatuko lirateke eta, honenbestez, besteak beste ekonomia zirkularraren prozesuak eraginkorki zehaztea legoke.

2.1.4 Bazkideen aniztasuna eta diru-tresna osagarrien arteko sinergiak errazten dituzten estatutuak eta berariazko gobernantza.

Mugaz gaindiko barterra osatuko luketen hiru azpisareek izan behar litzuketen estatutuei dagokienez, kooperatiba-egitura hobesten dugu guk. Alde batetik, eusko barterrak bultzatzen dituen balioekin bat datorrelako. Bestetik, zenbait alor eta jatorritako bazkideak biltzeko aukera ematen duelako, batez ere erakunde publikoetakoak. Frantziako zuzenbidean, hor dugu Société Coopérative d'Intérêt Collectif (SCIC) deritzon egituraren estatutua, zeina egokia bailitzateke Iparraldeko barterrerako. Hegoaldean, oraindik ere esperimentazio-fasean egon arren, zera frogatzen dute zenbait lan akademikok (Bengoetxea Alkorta, Etxezarreta Etxarri, Morandeira Arca, 2022), SCICen antzeko formula bat bideragarria litzatekeela Espainiako zuzenbidean. «Herri-kooperatiba» deritzo formula horri, zeinak erakunde publikoen kapitalari ere zabaltzen baitzizkio atek.

Mugaz gaindiko izaerari dagokionez, hau izan daiteke hurbileko hiru azpisareak kontrolatzeko egitura global batera egokitutako estatutua: Europako Sozietate Kooperatiboa (ESK). Europar Batasuneko zenbait herrialdetan martxan dauden kooperatiben elkarteak dira ESKk, eta beren kapitalean parte hartzeko aukera eskaintzen diete erakunde publikoei.

ESKren bitartez, barter-egitura hutsa baino gehiago antola liteke mugaz haraindiko «partzuergo» moduko bat, mugaz haraindiko lankidetzadynamikak sortzen dituen diru- eta finantza-tresna guztiek erkide dutena, Euskoa abiapuntu dela. Xedea: Bidasoaren alde bietako tresnen arteko sinergiak sustatzea. Proposatzen ditugun gobernantza-ereduek eta kooperatiben estatutuek «konglomeratu» moduko baten oinarriak ezar ditzakete, batez ere Euskoaren dynamikatik sortutako zenbait tresna bil ditzan, «sistema» bihurtu eta gai izan daitezten Euskal Herri osoan masa kritiko esanguratsuak mobilizatzeko. Nabarmen areagotuko lituzke horrek diru-tresna osagarrien ondorio potentzialak trantsizio ekologikoaren eremuan.

2.2 Hasierako enpresa-laginaren ezaugarriak, barter baten funtzionamenduaren araberrakoak

Barter batean parte hartzen duen lehenbiziko enpresa-multzoak aintzat hartu behar ditu sarearen funtzionamendu-betekizunak. M. Amatorek iritzian, komeni da tokiko ekonomiaren ezaugarrien azterketa meso-ekonomiko bat egitea; zehazki, lurraldeko enpresen arteko transakzioena. Elkarrekiko kreditu-plataforma batean esku har dezaketen enpresen profila zehazteko lagungarri izango litzateke azterketa hori. Baionako MIGrekin elkarlanean ekin diogu azterketari, mugaz gaindiko barterra martxan jartzeko lehen lagin bat zehaztea helburu genuela.

2.2.1 Euskal Herriko enpresen arteko fluxuen eta tokiko zirkuluen azterketak aukera ematen du zehazteko zein diren barter bat martxan jartzeko behar diren jarduera nagusiak.

Hona barterren ezaugarri aipagarrienetako bat: sareko partaide diren enpresa guztiek izan behar dute gai haren barruan salerosketak egiteko. Efektu paradoxikoa du ezaugarri horrek: alde batetik, muga bat da; baina, aldi berean, sustatu egiten du sarea trinkotzeko dinamika, zeinak areagotu egiten baitu etekinak handitzeko logika ekonomikoa (Lung, Montalba, 2020). Bestalde, barter baten funtzionamenduarekin bateragarriak diren tokiko jar-

duera nagusiak identifikatzearen, enpresen arteko fluxuen azterketa egiteko aukera eman du Baionako MIGrekiko elkarlanak. Azaldu berri dugun mugari dagokionez, tokiko zirkuituen balioan oinarritu zen bereziki, hots, maila lokaleko eskari bat asetzen duen ekoizpenaren proportzioan, enpresen arteko transakzioei dagokiena barne (BtoB). Datu argigarri bat: nazioarteko balio-kateetan txertatutako eta esportaziora bideratutako industria-sektoreak ez dira ongi egokitzen barter baten funtzionamendura. Aitzitik —eta ez da harritzekoa—, enpresen arteko zerbitzuek eta eraikuntza-lan publikoen sektoreak ere zirkuitu lokal zabalak dituzte, horrelako sistema batekiko bateragarritasuna baieztatzen dutenak.

Partikularrak ere onartuko lituzkeen balizko barter-eredu bati dagokionez, komeni da gogoratzea elikaduraren eta jatetxeen sektoreko jarduerak duten nagusitasuna egungo mugaz gaindiko trukean. Izan ere, MIG-ren azterketaren arabera, Ipar Euskal Herriak Hegoaldeari saltzen dizkion hornigaien zerrendan lehenbiziko postuan daude aipatutako jarduerak: bi eskualdeen arteko trukearen % 42, 114 milioi euro. Alderantzizko norabideko fluxuak ere berretsi egiten du jarduera horien pisua, Hego Euskal Herriak Iparraldeari egiten dizkion salmenten bigarren postuan baitaude: fluxuen % 18 dira (80 milioi euro).

Beste jarduera-eremu batzuei dagokienez, berriz, paradoxikoa eman arren badirudi mugaz gaindiko harreman ekonomikoen ahuleziak berretsi egiten duela ez dela errotu —oraingoz, behintzat— Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko truke potentzialik. Hala adierazten du, adibidez, eraikuntza eta lan publikoen jardueraren pisuak. Tokiko zirkuitu handiak alde batera utzirik, sektore horren inportazio- eta esportazio-fluxuak esanguratsuak dira. Alabaina, sektorearen ekoizpenaren % 1a baino ez da Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko trukea.

2.2.2 Lehendik lanean ari diren enpresa eta elkarten lagin bat izan daiteke oinarri mugaz gaindiko barterra martxan jartzeko lanean.

Prestatua dugu jada lagin bat, mugaz haraindiko barter bat martxan

jartzeko prozesuan parte har dezaketen enpresena; jarduera-eremua, berriz, lehen aipatutako eskualdeei dagokie: Iparraldea, Gipuzkoa, eta Nafarroako iparraldeko industrialdeak. Irizpide honen arabera egin dugu lagina: azpisare bakoitzak bermatu egin behar du bere koherentzia ekonomiko propioa. Kontuan izan dugu, halaber, BtoC zirkuituak eta BtoB transakzioak baliatzen dituen elkarrekiko kredituaren eredu bat martxan jartzeko aukera, barne hartzen dituen merkataria, jatetxeak, tabernak eta abar. Enpresen arteko fluxuaren gaineko ikerketaren osagarri, lehendik martxan dauden hiru sareen egitura aztertu dugu. Ondoren, hiru azpisareen egitura zehaztu dugu, haien jardueraren profilariekiko, eta haiek osatzen dituzten enpresak tamainaka sailkatu. Azken batean, honela aurkezten dugu lagina: hautatutako enpresei buruzko informazio zehatzak eskaintzen dituen MIGk eratutako datu-base gisara.

Hasierako egonkortze-atalasera iristean, denborak aurrera egin ahala aldatu egin daiteke laginaren egiturak ezarritako sare-konfigurazioa. Jarduerari dagokienez, berriz, batez ere eraikuntzarekin eta artisautzarekin lotutako jarduera gehiago sar daitezke. Izan ere, aipatu berri dugunez, tokiko lotura esanguratsuak dituzte jarduera horiek, baina baita inportazio- eta esportazio-fluxuekiko estekadura aipagarria ere, Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko mugaz gaindiko harreman komertzialetan oso gutxi nabari dena.

Hona gure proposamena: sare huts bat baino gehiago, enpresa-erkidego gisara antolatzea barterra, Euskoaren balioen inguruan. Hartara, eragile askoren lankidetzak izan dezake mugaz gaindiko barterrak, bereziki Ekonomia Sozial Eraldatzailearen alorrekoena (ESE). Eragileen zerrenda prestatu dugu. Abantaila garrantzitsua da lankidetzak hori barter batentzat, oso dinamikoak baita Euskal Herrian ESEaren eremua. Aski ezaguna da Mondragon taldeko kooperatibek Hegoaldean duten eragina, mundu osoko esperientzia kooperatiborik esanguratsuenak baita industriaren alorrean. Baina Iparraldean ere bada ESEaren tradizio luze bat, ekimen ugari osatua (Itçaina, 2010), zenbait alorretan halako «ekosistema alternatibo» bat eratzen dutena. Hain zuzen ere, ekosistema horren inguruan garatu da Euskoa (Milanesi, 2022).

2.3 Eredu ekonomikoa: barterra martxan jartzeko, eskaintza erakargarria, inbertsio garrantzitsua eta garapen iraunkorrerako elkarteak behar dira

Mugaz gaindiko barter-proiektuaren bideragarritasun ekonomikoa ebaluatzeko, berriz, haren eredu ekonomikoaren parametroak zehaztu ditugu: balio-eskaintza, sistema informatikoari dagokionez izan daitezkeen konponbideak, eta negozio-plan bat prestatzea. Beraz, horrelako sistema bat ezartzeak zenbait zailtasun dakartza berekin, guztiak ere kontuan hartu beharrekoak.

2.3.1 Balio-eskaintza bat, ezaugarri garrantzitsuena hau duena: balio-komunitate berean eta mugaz gaindiko negozio-sare batean parte hartzea.

Zenbait lan-saio egin ditugu enpresa-talde txiki batekin, mugaz gaindiko barter-proiektuaren gaineko lehen iritzia jasotzeko. Enpresa horietatik, Euskoaren sarekoak dira gehienak, baina ez denak, eta ia guztiak daude interesaturik barterrerera atxikitzearekin, sustatuko lituzkeen balioak direla eta. F. Pinosek (2020a) Euskoaren inpaktuaz egindako azterlanak ere ondorio bera ateratu zuen: enpresentzat, Euskoak bermatzen duen funtzio garrantzitsuenetako bat zera da, tokiko diruak defendatzen dituen balioekiko konpromisoa.

Bartering sistema orok euskarri dituen altxortegiko kredituei edo aurre-rakinei dagokienez, berriz, ez dute epe laburrera hainbesteko interesik eragin kontsultatutako enpresa bakanetan. Izan ere, egungo koiunturan enpresek ez dute finantzaketa-arazorik pairatzen. Alabaina, koiuntura makroekonomikoaren bilakaerak eta, bereziki, interes-tasen igoerak eta kreditua eskuratzeko baldintzak zorrozteak ez ditu babesten enpresak finantzaketa lortzeko balizko zailtasunetatik.

Balioekiko atxikimendua ez ezik, enpresen behar ekonomikoei eraginkortasunez erantzuteko gaitasuna ere erakutsi behar du barterrak. Alde horretatik, hona martxan jarri behar den sistemaren balio-eskaintzaren muina: mugaz gaindiko negozio-sare bat sustatzeko prozedurak. Zenbait barterreta-

rako zerbitzuen benchmarkak erakutsi digunez, partaideen truke komertzialak areagotzeko zenbait prestazio eskaintzen dituzte sistemarik arrakastatsuenek: merkatu digitala, esleitutako artekarien laguntza ziurtatua, zenbait komunikazio-tresna, sarearen ekitaldiak... Jarduera-eremua zein duten, mugaz gaindiko negozio-sare batean esku hartzeko benetako interesa adierazi dute galdetutako enpresek.

Oso egokia deritzote —halaber— gutxi erabiltzen diren aktiboak baliosteari, bai eta ekonomia zirkularrean murgiltzeko aukera ematen duen mugaz gaindiko sistema batean parte hartzeari ere.

Azkenik, hasierako fasearen ondoren eta egonkortze-atalasea igarota, interesgarria gerta dakieke barterra, prestazio-eskaintza nola handitu gogoe-ta eragin baitiezaieke. Partikularren partaidetza onartzen duen barter-eredu batean, berriz, jarduera profesionalak egiten dituzten elkarteentzako berariazko lerro bat susta dezake sistemak, Euskal Herriko mugimendu asoziatiboaren indarra ikusirik. Halaber, beste kreditu-mota batzuk ere azter daitzke, hala nola trantsizio ekologikoko irizpideak betetzen dituzten inbertsio proiektuen finantzaketa osagarriari dagozkionak.

2.3.2 Hiru irtenbide sistema informatikorako.

Sistema informatikoari dagokionez, hiru irtenbide aztertu dira: Com'Chain-Lokavaluto informazio-sistema, Korp enpresarekin marka zuriko kontratu bat sinatzea, eta Cyclos/Cyloos soluzioa. Egokienak azken bi aukerak iruditzen zaizkigu; izan ere, bartering «lanbideari» soluzio informatiko bat uztartzen diote. Eta lehenago ere aipatu dugunez, sustapen komertzialaren aldetik berariazko alderdiak ditu barteringak.

a/ Bloke-kate edo blockchain bat (Ethereumen teknologia) du funtzionamenduaren eragile Suitzan garatutako Com'Chain sistemak. Tokiko beste diru batzuek ere erabiltzen dute teknologia hori, «Biletujo» aplikazioaren bidez, zeina Lokavaluto elkarteak sortu baitzuen, ordainketa digitalak tokiko diruaz egiteko. Eusko barterren kudeaketa-beharrak a priori asetzen ditu sistema horrek. Baina, gaur egun, Euskoak Cyclos erabiltzen du ordainketa digitalak kudeatzeko. Com'Chain erabiltzeak, berriz, desabantaila hau izango luke:

kostu handiak eragingo lituzke bloke-kateranzko migrazioak.

b/ Bestalde, lehen France Barter zeritzon Korp enpresarekiko marka zuriko kontratu batek abantaila hau eskaintzen du: trebakuntza bartering «lanbi-deaz». Izan ere, alderdi estrategikoa da trebakuntzarena jarduera martxan jartzeko. Are gehiago, balio-eskaintzari dagokionez, gutxi erabiltzen diren aktiboak balioesteko aukerak interes berezia pizten du galdekatu ditugun enpresen artean, ekonomia zirkularraren praktikak baliatzea ahalbidetzen baitu. Dena dela, zera eskatzen du aukera horrek: enpresen jardueren diagnostikoa egiteko gaitasun egokia.

c/ Egun, Herbeheretan STRO Fundazioak garatutako Cyclos sistemarekin funtzionatzen du Euskoak. Sardexek ere Cyclos erabiltzen du. Bada hirugarren aukera bat ere: hiru alderdiko lankidetzaren eremu bat eratzea STROrekin (Cyclos), Cylaosekin (Cyclosen Frantziako bazkidea) eta Sardexekin. Plataforma informatikoa hedatzeko laguntza eman lezake partzuergo horrek, baina baita bartering-jardueraren hastapenen jarraipena egiteko ere, Sardexen aholkularitza eta trebakuntza lagungarri direla. Marka zuriarena baino interesgarriagoa dirudi soluzio horrek, baina bada kontuan izan beharreko oztopo bat: italieraz mintzatzen diren bazkideekin jarduteko hizkuntza-zailtasuna.

2.3.3 Negozio Planaren ondorioak: inbertsio handia eskatzen du barterra martxan jartzeko faseak.

Euskal Herriko barter-sistema batek behar dituen funtsezko ezaugarriak aintzat hartuta prestatu dugu Negozio Plana:

a/ Funtzionamendu-kostu esanguratsuak dituen mugaz gaindiko erakunde bat. Lehenago ere zehaztu dugunez, hiru azpisare izango ditu barterrak, eta haietako bakoitzak hurbileko sustapen komertzialeko talde bat behar du. Mugaz gaindiko egitura orokor batek kontrolatuko ditu hirurak. Lagungarria izango da egitura, baina funtzionamendu-kostu handiak izango ditu.

b/ Inbertsio handiak funtsezko baliabideetan. Sistemaren kudeaketa eraginkorra eta segurua ahalbidetu behar du informazio-sistemak: baztertu ezin diren inbertsioak behar ditu. Balio-eskaintzaren sinesgarritasunak, berriz,

enpresen beharrei erantzutea du oinarri; horretarako, enpresa-funtzio asko bereganatzen dituen azpiegitura digital aurreratua behar da. Neurri handi batean talde komertzialaren eskumenen mende dagoenez balio-eskaintza hori, inbertsio handia egin behar da prestakuntzari dagokionez.

c/ Arriskuaren kudeaketa, ahalik eta zorrotzena. Arriskuak egokiro kudeatzeko, barne-prozedura oso zorrotzak behar dira, eta informazio-sistemaren bidezko protokolo automatizatuak. Hona zer aldarrikatzen dugun: berme-funts bat sortzea, hasieratik bertatik, nahiz eta barter guztiek ez duten neurri hori onartuko.

Bestalde, SoNantesen eta Aurexen esperientziek erakutsi digutenez, komeni da oso baikorrak ez izatea barter baten hastapenak direla eta. Honenbestez, hipotesi oso zurrak ditu euskarri prestatu dugun Negozio Planak, batez ere merkaturatze-fasean enpresak sarera biltzeko dinamikari dagokionez. Epe laburrera, sartzen diren finantza-fluxuak ez dira aski izango sistemaren autonomia finantzarioa bermatzeko, hau da, lehen hiru urteetako gastu arruntak eta inbertsio-kostuak estaltzeko. Azkenik, gure aurreikuspenen arabera, 645.000 euroko laguntza beharko da barterra martxan jartzeko. Laugarren urtearen amaiera aldera izan ditzake barterrak emaitza positiboak, ez dira xumeak inondik ere. Gure kalkuluen arabera, 700 enpresak baino gehixeagok osatuko dute sarea.

2.3.4 Azken batean, komeni da zurrak izatea. Euskal Herriko mugaz gaindiko barter baten plazaratze- eta garatze-baldintzak direla eta.

Euskoarekiko bateragarritasuna ziurtatzen du aldarrikatzen dugun elkarrekiko kreditu-sistemak, zeinak mugaz gaindiko enpresa-erkidego baten egitura izango bailuke, eta tokiko diruaren balio berberak izango bailituzke euskarri. Bat dator konfigurazio hori barter-eredu honekin: enpresen arteko transakzioetara mugatzen ez dena (Sardexekoa, adibidez) baina partikularren esku-hartzera zabalik dagoena.

Dena dela, haren plazaratzeak eta garapen iraunkorrak bermatu egin behar dituzte bideragarritasun ekonomikoko irizpideak, zeinekiko oso zurr-

ra izatea komei baita.

Martxan jartzeari dagokionez, gogora dezagun –lehenik eta behin– SoNantes eta Aurexeko kasuek zera nabarmentzen dutela, erne egon behar dela barter bat ezartzean izaten diren baldintza makroekonomikoak direla eta. Barter baten funtzionamenduaren muina diren altxortegiko aurrerakinek, berriz, ez dirudi aparteko garrantzirik dutenik epe laburrera, enpresek kreditua eskuragarri duten testuinguru honetan. Gainera, inbertsio handia eskatzen dute: laguntza publikoak beharko dira, eta lurraldeko erakundeetako lankidetzak. Jada aipatuak ditugun kooperatiba-estatutuen bidez (SCIC Iparraldean, herri-kooperatiba Hegoaldean, ESK mugaz haraindi) susta daiteke lankidetzak. Estatutu horiek aukera ematen diete erakunde publikoek barterren kapitalean esku hartzeko. Ekonomia sustatzeko tokiko egiturekiko lankidetzak ere euskarri izan behar du lankidetzak: ganbera kontsularrak, garapen-kontseiluak eta -agentziak... Honegatik aldarrikatzen ditugu lankidetzak eta elkarlan horiek: proposatzen dugun barter-sistema ez delako komertziala, baizik eta Euskal Herriko ekonomiari ekarpen positibo garrantzitsuak egingo dizkion enpresa-erkidego bat.

Lauzabost urte igaro ondoren, seguru aski egonkortu egingo da sistema, eta beste garapen-sekuentzia bati ekiteko moduan izango da. Bere zerbitzu-eskaintza zabaltzeko eta sareko jardueren egitura egokitzeko prest egon behar du; besteak beste, eraikuntza- eta artisautza-sektoreko enprezen parte-hartzea areagotuz. Funtsean, Hego Euskal Herrian gauzatuko da garapen hori, ia hiru milioi biztanle dituen lurralde batean hedatzeko aukera izango baitu barterrak, eta ekoizpen-sare ekonomiko trinkoa. Barterren buruekin egin ditugun elkarrizketek⁹ berretsi egin dute gure ikuspegia: «start up» baten logika du barterren garapenak, hau da, inbertsio handia egin behar da hasieran, bost edo sei urteren ondoren errentagarritasuna lortzeko. Gure ustean, egiaztatuta dago gure ikuspegia, hein batean bederen. Izan ere, gure azterketaren arabera, etengabe inbertitu behar da barter baten garapen-prozesu osoan. Masa kritikoa presio estua jasaten du prozesuak, inbertsio-kostu berriak amortizatzen behar diren eskalako ekonomien premia dela medio. Dinamika hori dela eta, hasieran aitzindaritzat jotzen ziren

9 Besteak beste, Korp sozietateko (France Barter zena) Samuel Cohen eta Aurexeko Camille Chautagnat.

jarrera batzuk zalantzan jarri dituzte zenbait barterrek. Sei urtez lanean jardun ondoren, France Barter zenak (egungo Korp-ek) utzi egin dio kooperatiba izateari, beste inbertsio-plan bat zehazteko aukera ematen dion finantzaketa eskuratzearren. Sardexek, berriz, hamar urteren ondoren Sardiniarekiko atxikimendu estua alde batera utzi eta maila nazionaleko sozietate bihurtu da, Italiako plataforma guztiak bateratzeko. Euskal Herriko mugaz gaindiko barter batek ere presio berak jasango ditu, zalantzarik gabe. Beraz, barteraren arrakasta eta iraunkortasuna lortzeko, areagotu egin behar dira mugaz haraindiko trukeak haren barruan, eskalako ekonomietara iritsi eta inbertsio-kostu berriak amortizatu ahal daitezten. Baina, oraingoz bederen, mugaz haraindiko izaera hori erronka handia da, berezkoak dituen zailtasunak eta Pirinioak zeharkatzen dituzten fluxu ekonomikoen ahultasuna direla medio. Bestalde, zaila iruditzen zaigu mugaz gaindiko barter bat sortzea tokiko elkarrean laguntzarik gabe, hots, proiektuarentzako babes politikorik gabe.

Nolanahi dela ere, barter bat martxan jartzeko erabakiak zera eskatzen du, bideragarritasun-azterketa honen bigarren faseari ekitea. Enpresa-lagin baten egitura zehaztu dugu, zeina bateragarria baita mugaz gaindiko barter baten sorrerarekin. Baionako MIGren datu-basea izan du oinarri prozesuak. Handia da, oso, datu-basea: Iparraldeko 500 enpresak eta Gipuzkoako zein Nafarroako iparraldeko beste 9.843k osatzen dute. Euskoaren balioekin bat datozen enpresak hautatu behar dira, a priori. Horretarako, bertako bazkideekin egin behar da lan: ekonomia-sustapenerako tokiko organismoak, ESEaren eragileak... Ondoren, sentsibilizazio-kanpaina bat egin behar da hautatutako enpresa-taldearekin. Lehenik eta behin, eginkizun pedagogikoa izan behar du kanpainak: barter bat zer den azaltzea, eta sortu nahi den plataformaren lehen zirriborroa aurkeztea, gizartearen interesa eragiteko (ahal den neurrian). Etapa garrantzitsua da, enpresek ez baitute sistema horien berririk. Gipuzkoan —esate baterako—, aurreiritzi ugari dituzte enpresaburuek barterak direla eta, B. Moralesen ikerketa baten arabera (2014): haien funtzionamendua ez dago kontrolatua, gizarte-mugimenduek sustatutako sistema alternatiboak dira, ez dute loturarik enpresaren munduarekin... Bigarrenik, sistemaren «baterako eraikuntzako» ikuspegiarekin bat etorri behar du prozesu horrek, eta enpresaburuen iritziek zein iradokizunek aberastu egin behar dute proposatutako plataformaren lehen prototipoa, baita aldatu ere. Honenbestez, prestatu dugun metodologiak bateratu egiten

ditu alderdi kuantitatiboak eta kualitatiboak (ikusi 5. eranskina).

2.4 Hona barter bat martxan jarri aurretik eman beharreko bi pauso: Hego Euskal Herrian Euskoa probatzea, eta ESEaren mugaz gaindiko sare bat eratzea

Potentzial handia du Euskal Herrian elkarrekiko kreditu-sistema batek. Alabaina, ez da zailtasunik faltako hura plazaratu eta garatzeko bidean, eta oso zuhurrak gara horrelako proiektu baten bideragarritasun ekonomikoa dela eta. Honenbestez, epe laburrera eta «ex nihilo» barter bat sortzearen ordezkoko aukera hau ere aztertu behar da: zenbait tresna (edo izapide) martxan jartzea aldeztu aurretik, barterra plazaratzeko baldintza egokiak sortzearen.

Hona barter-plataforma baten arrakastaren funts nagusia: sare bat sortzeko gaitasuna, eta haren barruan nahiko zenbateko handiko transakzioak egiteko joera izatea enpresek. Alde horretatik begiratuta, Hego Euskal Herrian Euskoa probatzea eta/edo ESEaren mugaz gaindiko sare bat antolatzea barter bat eratzeke aurreko urratsgisa har daitezke, mugaz haraindiko enpresa-sareen sorrera bultzatzen baitute.

2.4.1 Hego Euskal Herrian Euskoa probatzea...

Ezaugarri berezi bat du Euskoaren erabilera digitalak: handiagoa da enpresen arteko transakzioen zenbatekoa (BtoB) enpresen eta partikularren artekoa baino (BtoC). Beraz, pentsa daiteke Hego Euskal Herrian Euskoa hedatzeak mugaz gaindiko enpresa-sare bat sortzea ekar dezakeela berekin, eta transakzioak egiteko joera garatuko litzatekeela sare horretan, hura sustatzeko berariazko prozesu baten bidez.

Bi eremu hautatu ditugu Hegoaldean Euskoaren balizko hedapen baterako: Nafarroako iparraldea (Baztan-Bidasoa-Malerreka) eta Donostialdea (Gipuzkoa). Zer duten erkide bi eskualde horiek? Bada Iparraldetik hurbil daudela. Baina eskualde bakoitzaren berezitasun sozioekonomikoak ere aintzat

hartzeko modukoak dira: landa-eremua da bata, hiri-eremua bigarrena.

Tokiko diru ugari daude Espainiako Estatuan, udalerrri-mailakoak gehienbat, eta udalen laguntza jasotzen dutenak. Beste ikuspegi batetik ekin dioguk Euskoa probatzeko aukerari: bizileku-eremuaren aldetik, hain justu ere. Ikusmira horretatik aztertu dugu Euskoa probatzeak izan dezakeen potentzial ekonomikoa, bi bizileku-eremu horien arteko erosketak eta hornidura komertzialen koherentzia eta tamaina kontuan harturik.

Gainbehera demografikoa ari da pairatzen Baztan-Bidasoa-Malerreka eskualdea, eta erronka handia da hori tokiko merkataritzarentzat. Hala eta guztiz ere, gastu komertzialen % 77 eskualdean bertan egiten da, adinekoen kontsumo-ohiturak direla eta. Gazteak, aldiz, ez dira joera horren jarraitzaile hain sutsuak. Beste abantaila garrantzitsu bat: merkataritza-sarea oso ondo egituratuta eta hedatuta dago, merkataritza-marka handiak indartzeak berearekin dakartzan arriskuak kontuan hartuta. Gainera, bereziki trinkoa da sare asoziatiboa, eta bizia euskararen erabilera. Ondorioztatzen dugu, beraz, nahiko inguru egokia dela Euskoarentzat. Konurbazio garrantzitsua da Donostialdea, 300.000 biztanle ingurukoa. Hurbileko merkataritzak beheranzko joera ageri duen arren, txikizkako merkatarien kopuru handiak eta egungo jardueren aniztasunak oinarri ekonomiko nahikoa eskaintzen dute tokiko dibisa bat probatzeko.

Alor juridikoari dagokionez, hiru funtzionamendu-aukera ditu Euskoak mugaz gaindiko eremu horretan. Baina, epe laburrera, hau litzateke eraginkorrena: beste erakunde juridiko bat sortzea Hego Euskal Herrian. Euskal Monetarekin lankidetzaren hitzarmen bat sinatzeak aukera emango luke —konpentsazio-mekanismoen bidez— Hegoaldeko eta Iparraldeko euskoen arteko elkarreragina sustatzeko. Proba horren eredu ekonomikoarentzat onuragarria izango da zera, Euskal Monetak zerbitzu-prestazio baten bitartez —adibidez— jar dezakeela behar den azpiegitura.

2.4.2 ESEko eragileen mugaz gaindiko sarea.

Tradizioa handia du ESEak bai Hego Euskal Herrian bai Iparraldean. Baina, paradoxikoki, noizean behin izan ohi dira Pirinioen alde bietako era-

gileen arteko trukeak. Ipar Euskal Herrian, ESEko eragileen federazio bat osatzen ari dira hiru egitura —Atelier Lan Berri, Andere Nahia eta Hemen—, enpresa-demokraziaren eta trantsizio ekologikoaren arloko balioak eta «Ekonomia Sozial Eraldatzailea» (ESE) kontzeptua oinarri dituztela. Hego Euskal Herriko OlatuKoop kooperatiba-elkarterekin harremanetan jardungo da Ipar Euskal Herriko federazio hori, Euskal Herri osoko sare bat sortzeko.

Hona sarearen helburua: lehenik eta behin, eragile horien elkar-ezagutza egokia bermatzea, mapa bat eta martxan jartzen dituzten jardueri buruzko informazioa biltzen duen datu-base bat eginez, zer balio-katetan txertatzea komeni zaien jakiteko, besteak beste. Baliabide horren bitartez sustatuko dira eragile horien arteko trukeak eta proiektu jakin batzuen inguruko lankidetzak. Azken batean, sarearen xedea hau da: «elkarlana» sustatzea, baliabideak partekatuz eta zerbitzu erkideak proposatuz.

Balioen hurbiltasuna dela medio, Euskal Herrian barter bat sortzeko balizko bazkide garrantzitsutzat jo ditugu ESEko eragileak. Bestalde, tokiko moneten Frantziako federazioaren iritzian —Mouvement SOL deritzona—, ESEarekiko lankidetzak da tokiko diruak garatzeko egungo ardatz nagusietako bat. Litekeena da, honenbestez, areagotuz joatea ESEko eragileen mugaz gaindiko sare batean baliabideak eta zerbitzuak partekatzeko aukera eta, pixkanaka, elkarrekiko kreditu-plataformen zenbait funtzionalitate bereganatzea (merkatua, adibidez).

Azkenik, komeni da azpimarratzea bi aukera horiek ez direla kontrajariak, osagarriak baizik. Beraz, zergatik ez probatu Euskoa, ESEko eragileen mugaz gaindiko sare baten laguntza tarteko dela?



Illustration : storyset.com

Bibliografia

Alcalde H., Lorenz Erice U. (2019), « Enjeux de la collaboration entrepreneuriale transfrontalière : expérimentation au sein de l'Eurorégion Nouvelle-Aquitaine Euskadi Navarre », Cuadernos de Orkestra, 53/2019.

Agence de l'Environnement et de la Maîtrise d'Énergie (ADEME) (2016), « Les monnaies locales complémentaires environnementales. Etat des lieux, impacts environnementaux et efficacité économique », rapport.

Agence de l'Environnement et de la Maîtrise d'Énergie (ADEME), Institut de l'Économie circulaire (2017), Dix initiatives de synergies inter-entreprises, rapport.

Agence d'Urbanisme Atlantique & Pyrénées (AUDAP) (2019), Stratégie de coopération transfrontalière 2020-2030 de la Communauté d'Agglomération Pays Basque : l'expression commune d'une ambition partagée.

Aglietta M. (2015), « Monnaie et développement durable », in Magnen J. P., Fourel C., D'autres monnaies pour une nouvelle prospérité. Mission d'étude sur les monnaies locales complémentaires et les systèmes d'échange locaux, Deuxième partie, pp.165-169.

Amato M. (2016), « Sardex plus qu'une monnaie pour les PME ! », Alternatives Economiques, mai.

Antoniadis P., Dini P., Littera G., Sartori L. (2017), « From an idea of scalable working model : merging economic benefits with social values in Sardex », International Journal of Community Currency Research, 21, Winter, pp.6-21.

Bazzani G. (2020), When Money changes Society. The case of Sardex money as community, Springer.

Bengoetxea Alkorta A., Etxezarreta Etxarri E., Morandeira Arca J., (2022), « Herri kooperatibak helduleku teorikoak eta bideragarritasun juridikoa Euskal Herrian », KoopFrabrika argitalpenak, urria.

Blanc J. (2015), « Transition écologique de l'économie et monnaies locales. Discussion à partir des propositions de Michel Aglietta », in Magnen J. P., Fourel C., D'autres monnaies pour une nouvelle prospérité. Mission d'étude sur les monnaies locales complémentaires et les systèmes d'échange locaux, Deuxième partie, pp.169-180.

Blanc J., Perrissin Fabert B. (2016), « Financer la transition écologique des territoires par les monnaies locales », Institut Veblen pour les réformes économiques, janvier.

Blanc J. (2020), « Politiques territoriales de résilience et de transition écologique : la piste des monnaies locales », Terra Nova, juin.

Blot P. (2022), « Quelles orientations pour les politiques monétaires en 2022 ? », post de l'OFCE, janvier.

Bruntland G. H. (1987), « Notre avenir à tous », Commission mondiale sur l'environnement et le développement, SMED.

Chautagnat C. (2022), « Guide pour créer et développer un système d'échanges inter-entreprises. A partir de l'expérience d'Aurex, Plateforme de coopération et d'échanges de biens et services entre entreprises et associations », février.

Chmielewski T., Howell J. (2009), Barter & Trade Exchanges, Alpha Books.

Cohen S. (2018), « Identifier et valoriser les actifs inutilisés de votre entreprise », blog de France Barter (<https://blog.francebarter.coop/identifier-et-valoriser-les-actifs-inutilises-de-votre-entreprise/>)

Commissariat Général au Développement Durable (CGDD) (2014), Ecologie Industrielle et Territoriale : le guide pour agir dans les territoires.

Corredor E., Tapia I., Uriogoitia M., San Jose L. (2015), Innovación en finanzas para los stakeholders : Arboribus, Trocobuy y Kantox, EHU (Euskal Herriko Unibertsitatea)/UPV (Universidad del País Vasco) - ECRI (Ethics in finance and Social Value).

Circular Economy Wales (2019), "Proposals for a Mutual Credit System for Wales", Report.

Conseil de Développement du Pays Basque (CDPB) (2019), Contribution au projet de schéma de coopération transfrontalière de la Communauté d'Agglomération Pays Basque. Révétons le territoire transfrontalier ! Octobre.

Dini P., Kioupkiolis A., Read R., (2019), « The alter-politics of complementary currencies : The case of Sardex », Cogent Social Sciences, 5:1, July.

Elissée C., Hayek F., Lafourcade P., Tichit A. (2022), « La Blockchain, avenir des monnaies locales ? », Cerdi, working papers.

Empleo (2020), « Diagnostic sur l'emploi transfrontalier dans l'Eurorégion Nouvelle-Aquitaine, Euskadi, Navarre ».

Eusko Ikaskuntza (2006), Euskal nortasuna eta kultura XXI. mendearen hasieran.

Face V. (2017), La WIR banque et ses effets contracycliques. L'utilisation de crédit complémentaire comme buffer aux crises, Mémoire de Master en

Sciences Economiques, Université de Namur.

Fare M. (2016), Repenser la monnaie. Transformer les territoires, faire société, Éditions Charles Léopold Mayer.

France Barter (2020), Mesure d'impact social, juin.

France Barter (2021), Rapport de la gérance, SCIC-SA France Barter.

Gaindegia, Azaro Fundazioa (2016), Mugaz gaindiko lankidetzak Euskal Herrian eta Europako Batasunean, apirila.

Granovetter, M. (2013), « The Strength of Weak Ties », American Journal of Sociology, vol 18, n°6, May.

Graignon M., Merebier A. (2022), « La résilience des PME en 2021 : un atout pour affronter les difficultés de 2022 », Bulletin de la Banque de France, 242/3, septembre-octobre.

INSEE (2021), Les entreprises en France, Edition 2021

Itçaina X. (2010), « Les régimes territoriaux de l'économie sociale et solidaire : le cas du pays basque français », Géographie, économie, société, 1- Vol.12.

Iturbe J. A. (2022), « Ekonomia zirkularra Euskal Herrian », Telesforo Monzon Laborategia.

Kalinowski W. (2011), « Pluralité monétaire et stabilité économique : l'expérience suisse », Institut Veblen pour les réformes économiques, octobre.

Kennedy M., Lietaer B. (2008), Monnaies régionales. De nouvelles voies vers une prospérité durable, Editions Charles Léopold Mayer.

Keynes, J. M. (1942), « Proposals for an International Clearing Union », in D. Moggridge, ed., (1980), The Collected Writings of John Maynard Keynes, Vol. XXV, London: The Macmillan Press, pp.168-196.

Lafuente-Sampietro O. (2022), « Les effets des monnaies locales convertibles françaises sur la structuration des échanges et l'activité économique des en-

treprises adhérentes. Une approche quantitative au prisme de l'économie régionale », Thèse de doctorat en Sciences Economiques, novembre.

Lietaer B. (2009), « Créer des monnaies régionales pour traiter la crise globale », Séminaire Entrepreneurs Villes et territoires, Ecole de Paris, 13 mai.

Lorenz Erice U., Oleaga Páramo M. (2020), Défis posés par le RIS3 : analyse de l'espace transfrontalier Nouvelle-Aquitaine, Euskadi, Navarre, Cuadernos de Orkestra, 63/2020.

Lung Y. (2022), Les monnaies locales dans les dynamiques de transition, Editions Apogée.

Lung Y., Montalban M. (2020), « La résilience de l'écosystème des monnaies locales en France face à la transition numérique », RECMA. Revue internationale de l'économie sociale, n°358, octobre.

Magnen J. P., Fourel C. (2015), D'autres monnaies pour une nouvelle prospérité. Rapport de la mission d'étude sur les monnaies locales complémentaires et les systèmes d'échange locaux, avril.

Milanesi J. (2022), « L'écosystème alternatif du Pays Basque français », Rapport de recherche, CERTOP, Université de Toulouse, juillet.

MMA (2017), « Assurances et pratiques collaboratives entre petites entreprises », octobre.

Monnaie Léman (2021), Biletujo, portefeuille multi-monnaies, Livre blanc, Genève.

Moral B. (2014), Elkartruke komertziala sistemaren bideragarritasuna Gipuzkoan, Aptes.

Navarro M. (2018), "Colaboración regional transfronteriza y RIS3", Cuadernos de Orkestra.

Ostrom E. (2010), Gouvernance des biens communs. Pour une nouvelle approche des ressources naturelles, Éd. De Boeck.

Pilet J. F. (2017), « Retour d'expérience de SoNantes : combiner le crédit inter-entreprises et une monnaie locale », Institut Veblen pour les réformes économiques, octobre.

Pinos F. (2020 a), « Euskal Moneta. Mesures de l'impact social, état des lieux 2020 », document de travail.

Pinos F (2020 b), « En quoi la blockchain pourrait-elle constituer une ressource clé dans le processus de création de valeur d'une monnaie locale ? Une étude de cas centrée sur l'eusko », Note de travail MoLoNa, n°3, décembre 2019.

PIPAME (2013a), Potentiel et perspectives de développement des plateformes d'échanges interentreprises.

PIPAME (2013b), Le guide des échanges interentreprises de biens et services.

Radjou N. (2021), « La révolution du partage B2B », Terra Nova, novembre.

RES (2022), Règlement d'ordre intérieur, RES scl.

Sartori L. (2017), Sardex, a Complementary Currency that Shapes a New Financial.

Stodder J. (2009), « Complementary Credit Networks and Macro-Economic Stability : Switzerland's Wirtschaftsring », Journal of Economic Behavior & Organization, 72, October.

Tapie N. (2018), « BarterLink comment les entreprises échangent leurs actifs sous-utilisés ? », La Tribune, 19 juin.

Vallet G. A. (2015), « Le WIR en Suisse : la révolte du puissant ? », Revue de la régulation, vol.18, 2e semestre.